

# ENPRESA-IDEIAK BILTZEKO EZKERRALDEKO ETA MEATZALDEKO 10. LEHIAKETAREN OINARRIAK

## 1. Sarrera

---

Ezkerraldea eta Meatzetako Behargintza Zentroek, euren jarduera eremuaren barruan, sendotu beharreko arloa ikusten dute zonaldeko enpresa-ideiei laguntzak ematea, kultura ekintzailea bultzatzeko helburuarekin. Enpresa-espirtua eta enpresak sortzea sustatzeko dinamika honetatik, Enpresa-ideien Lehiaketa jarri da abian, ardurak eta eskualderako beharrezkoak diren enpresa-ideia berritzaileak dituzten pertsonak saritzeari zuzenduak.

## 2. Helburuak.

---

- Hiritarrak kultura ekintzailera eta enpresa berriak sortzeko kulturara hurbiltzea.
- Udalerriko eta eskualderako beharrezkoak diren enpresa ideia berrien garapena bultzatzea.
- Enpresaren kulturari laguntza eman eta zabaltzea zonaldeko pertsona ekintzaileen artean.
- Enpresa sarearen ezagutza hobetzea herritarren artean.
- Eskualdeak negozio aukera berriak sustatu eta bultzatzeko duen eginkizuna zabaltzea.

## 3. Nori zuzendua

---

Herritar guztiei zuzenduta dago, Behargintzak parte hartzen duen Ezkerraldeko eta Meatzetako udalerrietan erroldatuta egonik udalerriko eta eskualderako beharrezkoak diren enpresa ideia berriak aurkezten dituzten banakakoei edo kideen %50 erroldatuta dituzten taldeei.

## 4. Parte-hartzaileen baldintza orokorrak

---

- Adin-nagusiak izatea. (Horrela ez bada, taldearen ordezkaria adin nagusia izango da eta tutore lana egingo du).

- Behargintzak parte hartzen duen Ezkerraldeko eta Meatzetako Udalerrietako batean erroldatuta egotea (taldeen kasuan, gutxienez ere parte hartzen dutenen % 50 udalerrri horietan erroldatuta egon beharko da).
- Enpresa-ideia bat izatea eta enpresa-ideia horrekin proiektu bat gauzatzea aurrez ezarritako gidoiarekin bat.
- Saria jasotzen duten ideien jabetza parte hartzen duten Behargintza Zentroena izango da.
- Sari jasotzeko, proiektuaren ordezkariari eskatuko zaizkio Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin eta antolaketa egiten duen Udalarekin ordainketak eguneratuta dituelako ziurtagiriak.
- Sariak jasotzeko eskabidea 2018ko urriaren 31 baino lehen egingo da eta aurrez eskatutako dokumentazio aurkeztuko da.
- Aurkeztutako enpresa proiektuak gehienez ere 5 orri izango ditu alde bakarretik.

## 5. Sariak

---

<b>LEHENENGO SARIA:</b>	1.000,00 Euro
<b>BIGARREN SARIA:</b>	800,00 Euro
<b>HIRUGARREN SARIA:</b>	700,00 Euro
<b>20 SARI TOKIKOENTZATA:</b>	Entitate bakoitzak tokiko 4 sari banatuko ditu, bakoitza 300,00 Eurokoa.

**\*Sarien ordainketa egiterakoan dagokion kenketa egingo da aplikatu beharreko legediaren arabera.**

Enpresa entitateak, sarituak zein saririk jaso ez dutenak, ideien Banku publiko baten parte izango dira eta ideia horretan oinarritutako enpresa proiektu bat garatu nahi duen edozein pertsonaren eskura egongo dira. Edozein bide erabilita zabaldu ahal izango dira, internet barne, denbora mugarik gabe, eta enpresa-ideiaren ardura izan duen edo duen pertsonak nor diren espresuki adieraziko da. Lehiaketan parte hartzeak oinarriak ezagutzea eta onartzea dakar, eta baita aurreikusi gabeko arazoengatik hartutako edozein erabaki ere.

Meatzaldeko Behargintzak izango du sarien onuradun izan diren parte-hartzaileei sariak banatzeko ardura, banku-transferentzia bidez, aurrez Meatzaldeko Behargintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko duelarik.

## 6. Balorazio-Irizpideak

---

- Enpresa ideiarekin kreatibitatea.

- Eskualdeko enpresa sarean ezartzeko dituen aukerak.
- Ideiak ingurumenean izan dezakeen eragina.
- Ideiak eskualdeko udalerriek dituzten beharrian eta erronkekin duen lotura.

## **7. Dokumentazioa**

---

- Izen-emate orria, eredu orokorraren arabera.
- Enpresa-ideia aurkezten duen edo duten pertsonen Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
- Enpresa ideia-aren partaide bakoitzaren errolda ziurtagiria.
- Enpresa-ideia aurkezten dutenak bat baino gehiago badira, aurkezpen-idazkian saria jasoko den pertsona izendatu beharko dute.
- Enpresa-ideia ezarritako gidoiaren arabera.
- Epaimahaiak egoki irizten dizkion argibideak ematea eska diezaike parte-hartzaileei.

## **8. Aurkezteko epea eta modua**

---

Epaimahaiak enpresa-ideia aurkezteko ezarritako epea 2018ko otsailaren 5an hasi eta 2018ko apirilaren 12an amaituko da 13:00etan.

Dokumentazioa eta paperean inprimatutako enpresa-ideia, emandako gidoiaren arabera garatua, parte hartzen duten Behargintza Zentroetako egoitzetan aurkeztuko dira.

Aurkeztutako originalak ez dira itzuliko.

## **9. Prozedura**

---

Aurkezteko epea bukatuta, aurkeztu den dokumentazioa aztertuko da. Akatsak edo aldeak antzemanaz gero, epai-mahaia harremanetan jarriko da pertsona horiekin arazo horiek konpontzeko; eskaera horri erantzun ezean, automatikoki baliogabetuta geratuko dira.

Onartutako eskabideen zerrenda egin ondoren, balorazioa eta sariak emateko proposamena burutuko dira. Epaimahaiak, egoki baderitzo, informazio zabalagoa eskatu ahal izango du, bai idatziz bai eskatzaileekin egindako elkarrizketa bidez.

Epaimahaiak behin betiko sari-banaketaren zerrenda egingo du ezarritako balorazio-irizpideekin bat eta ondoren interesatuei jakinarazpena egingo zaie.

## 10. Epaimahaia

---

Epaimahaia parte hartzen duten Behargintza Zentroetako teknikoei osatuko dute.

## 11. Informazioa, eskabideak jaso eta entregatzea.

---

### **SANTURTZIKO BEHARGINTZA**

Itsasalde Kalea 26- 48980 - Santurtzi.

Telefonoa: 94 493 63 41

### **PORTUGALETEKO BEHARGINTZA**

La Canilla Eraikina 1. eta 2. Solairua - 48920 - Portugalete.

Telefonoa: 94 472 93 06

### **BARAKALDOKO BEHARGINTZA (Inguralde)**

Aldapa kalea, 3 A -48901- Barakaldo.

Telefonoa: 94 478 94 44

### **SESTAOKO BEHARGINTZA**

Txabarri kalea, 20 - 48910 - Sestao.

Telefonoa: 94 472 17 26

### **MEATZALDEKO BEHARGINTZA**

La Estación Etorbidea, 14 -Behea. -48530- Ortuella.

Telefonoa: 94 404 49 58